

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 283/2020 Erabakia, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea Ozetako Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kideen izendapenari

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari ezagutarazi dio hutsik daudela hainbat kargu Ozetako Administrazio Batzarrean, kide guztiek beren karguei uko egin dietelako, eta ez dagoelako kargu horiek beteko dituen hautetsi ordezkorik.

Horiek horrela, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak hautatzeko Foru Arauak 18. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak (Arabako administrazio batzarretako kudeaketa batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruzko arauak ezartzen ditu) bigarren apartatuan xedatutakoarekin, bidezko da izendatzea kudeaketa batzorde gisa administrazio batzarrean dauden kargu hutsak beteko dituzten pertsonak berriz ere hauteskundeetarako deia egin arte.

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio, besteak beste, administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko egin-kizuna, eta eginkizun horren barruan sartu behar da kargu horiek betetzeko foru aldundiak izendatzen dituen pertsonak proposatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hemen

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ozetako Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kide hauek izendatzea.

Mahaiburua: Josu Ochoa de Zuazola Martínez de Lahidalga.

Lehen kidea: Jon Balsategui Uriarte.

Bigarren kidea: Ingrid Buesa Engelman.

Bigarrena. Kide horiek erabaki hau jakinarazi ondorengo zazpigarren egun baliodunean hartuko dute kargua, 20:00etan, kontzejuaren aretoan edo biltzeko ohiko lekuan. Horretarako ez da berariazko deialdirik egin behar, eta bilerara, izendatuko gain, erakundeko idazkariak joan behar du, eta bileraren akta idatziko du.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundi honi bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta beronen aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA